

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko irailak 6 · 1281 zenbakia



JAI GIROAN IKASTURTEA HASTEKO

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko



aek euskara
praktikoa

EIBARKO AEK EUSKALTEGIA

2023-2024 EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak: A1,A2,B1,B2,C1,C2

16-18 urtekoentzat C1 prestatzeko dirulaguntza berria!

C2 prestatzeko ikastaroak!

MATRIKULA ZABALIK, irailaren 29ra arte

Sastoa 1, 1^o solairua · 943 20 13 79 · eibar@aek.eus

ARRATEKO AMAREN JAIAK 2023

irailak 7/8/10

antolatzailea:
EIBARKO UDALA



laguntzaileak:
ANDURRO ELKARTEA, ...ETA HITZOL BERTIQUAK
AGOLA BERRI, EIBARKO KLUB DEPORTIBOA



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*

Orain Eibarko,
Elgoibarko eta Ermuko BM-n
ere aurki gaitzakezu

Ekolozpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA Aiazitia Bailara (San Migel 40120A, 7) **ELGOIBAR 690288002** (Olaiz Txurruka Maiora)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Amaia Ugarte kazetariak jarraipen zehatza egin dio Australia eta Zeelanda Berrian jokatu den futboleko Mundialari, Gara egunkarian eguneroko kronikak idatziz.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Besteak larrutzea erraza da; besteen larruan jartzea ez hainbeste. Ez gaitzezen azalekoan soilik geratu. Ikasbide bikaina dira haurrak: nahi duten edo ez duten nahi adierazten dute soilik, apenas epaitzen dute. Nik ere, haurtzaroan eta gaztaroan jasotakoaren eta jazotakoaren desikasketa prozesu luze honetan, ikasi dut norbait kritikatu eta mina eragin diodan aldiro iltze bat sartu dudala bien arteko horman. Eta barkamena eskatu dudan aldiro iltze hori ateratzen saiatu arren, beti geratzen dela zulo edo arrasto bat.

AMAIA AGIRRE, bertsolaria

Pentsatu duzu euskarak aurrera egingo badu, turista gutxiagoko mundu batean egingo duela aurrera, herrian bizi den munduan. Kanpotik bisitan datorrenari bertakoa erakutsi eta azaltzeko denbora, tokia eta gogoa izango duen mundu sozialean. Zibilizazio alternatibo batean, finean. Pentsatu duzu agian Espainiako hurrengo Klima Aldaketaren kontrako legea euskaraz eztabaidatuko dutela Kongresuan, eta katalanez Europan. Beharbada onartuko dute legearen bigarren puntuan, Madrilgo hoteletan mini-barretako edariak euskaraz eskatu eta zerbitzatu beharko direla.

JOKIN BERGARA, soziologoa

Euskal Herriko zenbait aireportuk "inoizko uztailik onena" izan berri dute. Historiako aztarna ekologikorik txikiena izan dutela adierazi nahi al zuten aireportuko arduradunek? Azken hogeitaz munduko hegaldiak aurreko 60etan bezainbeste CO2 isuri dutenean, joera horri buelta emateko gai izan direla esan nahi zuten? Ez ba, inoiz baino bezero gehiago izan dutela jakitera eman nahi zuten, besterik ez. Bizi garen klima larrialdian, karbono gehien isurtzen duen garraiobidearen errekorrak ospatzeak konnotazio ezin ilunagoak dauzka.

DIEGO PALLÉS, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORDUA IZAN → Zerbait egiteko edo gertatzeko unea. "Ezkondu edo zeozer egitteko ordua dok".

ORDUAK AURRERA → Denbora pasatu, orduak joan. "Kintzena egun batian, orduak aurrera eta ez zan agiri Txoririk bere "kaixolara" (etxera)".

Hildakoak

- Iñaki Larrea Pinillos. 50 urte. 2023-07-01.
- Maria Paz Kaperotxipi Garate. 76 urte. 2023-07-06.
- Marisol Bueno Sarasketa. 78 urte. 2023-07-07.
- Juan Maria Lopez Andonegi. 76 urte. 2023-07-09.
- Jose Montañón Robles. 71 urte. 2023-07-12.
- Jose Maria Arronategi Madariaga. 87 urte. 2023-07-13.
- Lina Etxeberria Azkonaga. 99 urte. 2023-07-13.
- Genaro Zubia Ballona. 95 urte. 2023-07-13.
- Fernando Guenaga Maguregi. 76 urte. 2023-07-14.
- Lucas de la Prieta Aparicio. 74 urte. 2023-07-14.
- Angelita Sebastian Urizar. 95 urte. 2023-07-17.
- Teresa Vidal Fernandez. 61 urte. 2023-07-18.
- Ana Alvarez Goenaga. 55 urte. 2023-07-19.
- Carmen San Miguel Losada. 68 urte. 2023-07-20.
- Jesus Maria Martinez Yebra. 68 urte. 2023-07-23.
- Rosario Sanz Ibarguren. 76 urte. 2023-07-25.
- Francisca Gisasola Areitio. 88 urte. 2023-07-27.
- Manuela Alberdi Arriola. 93 urte. 2023-07-28.
- Fernando Errasti Iriondo. 94 urte. 2023-07-29.
- Lari Antolin Miguel. 93 urte. 2023-07-30.
- Pedro Arizmendiarieta. 90 urte. 2023-07-31.
- Nieves Aranburu Azkoaga. 92 urte. 2023-07-31.
- Bernarda Charro Garcia. 87 urte. 2023-07-31.
- Jon Etxabe Garitazelaia. 90 urte. 2023-07-31.
- Kike Diaz Ruiz. 54 urte. 2023-08-03.
- Peio Sologaistua Ubera. 89 urte. 2023-08-04.
- Eduardo Simon Pagei. 48 urte. 2023-08-06.
- Fernando Centeno Lopez. 89 urte. 2023-08-07.
- Rosario Martinez Carretero. 92 urte. 2023-08-07.
- Oskar Basurto Gonzalez. 62 urte. 2023-08-09.
- Julian Olabe Peña. 81 urte. 2023-08-09.
- Miguel Angel Larreategi Lenisoro. 70 urte. 2023-08-12.
- Elena Brotons Sarasketa. 67 urte. 2023-08-12.
- Gurutze Gantxegi Zuazua. 66 urte. 2023-08-13.
- Jose Ramon Calzada Llama. 76 urte. 2023-08-14.
- Victoriano Rodriguez Usano. 88 urte. 2023-08-16.
- Josefa Fernandez Alonso. 88 urte. 2023-08-17.
- Hipolita Rodriguez Solera. 98 urte. 2023-08-19.
- Jose Madariaga Urkidi. 89 urte. 2023-08-20.
- Heliodoro Martin Alonso. 70 urte. 2023-08-21.
- Margarita Diez Elbusto. 83 urte. 2023-08-22.
- Iñaki Zubiaurre Agirre. 85 urte. 2023-08-23.
- Oswaldo Gallastegi Axpe. 57 urte. 2023-08-23.
- Iker Herrera Saez. 46 urte. 2023-08-23.
- Mercedes Kareaga Guridi. 91 urte. 2023-08-24.
- Luzio Ezama Zinkunegi. 89 urte. 2023-08-24.
- Maria Garcia Sanchez. 94 urte. 2023-08-25.
- Maria Pilar Orueta Eguren. 97 urte. 2023-08-26.
- Juan Maria Bolinaga Lizarralde. 77 urte. 2023-08-27.
- Maria Alberdi Arakistain. 103 urte. 2023-08-29.
- Chelo Araujo Babarro. 89 urte. 2023-08-30.
- Ignacio Seara Garcia. 89 urte. 2023-08-30.
- Antonio Rey Iglesias. 84 urte. 2023-08-30.
- M. Angeles Arenaza Garitaonandia. 76 urte. 2023-08-31.
- Maria Carmen Ros Alonso. 84 urte. 2023-08-31.
- Jostexo Luis Escribano. 65 urte. 2023-08-31.

Farmaziak

EGUAZTENA 6
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 7
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 8
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 9)
ZAPATUA 9
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 10
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 11
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 12
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUENA 14
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 15
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdia	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Jaiotakoak

- Jade Aitana Monjarrez Carazo. 2023-07-01.
- Ghina el Arfaoui Fikri. 2023-07-10.
- Leila Emboiric Souina. 2023-07-12.
- Basma Bousbaa el Allam. 2023-07-13.
- Aratz Perez Rios. 2023-07-29.
- Ibai Aranzabal Dorado. 2023-07-29.
- Lucas Frunze Frunze. 2023-07-30.
- Jare Alonso Delgado. 2023-07-31.
- Jon Vadillo Martin. 2023-08-05.
- Pablo Seguin Yraolagoitia. 2023-08-17.
- Naia Fernandez Barroso. 2023-08-18.
- Martina Bilbatua Alvarez. 2023-08-18.
- Aya el Merabet. 2023-08-23.
- Paul Eguren Gonzalez. 2023-08-25.



Urriaren 8ra arte aurkeztu daitezke Ekinguneren On Ekin enpresa-idea eta proiektuen sarierako hautagaitzak

Ekingune elkarteak antolatzen dituen 2023 On Ekin Sarietarako izen-ematea zabalik dago, ekingune.com helbidean. Enpresa arloan sormena piztu eta sustatzeko asmoz antolatzen duten lehiaketara merkatuan funtziona dezaketen negozio-kontzeptuak, proiektuak zein ideiak aurkeztu daitezke, urriaren 8ra arte. Bi faseko lehiaketa da: lehenengoan,

epaimahai batek baloratuko ditu aurkeztutako proiektu guztiak; eta bigarrenean, proiektu irabazleak aukeratu dira, urriaren 26an egingo den ekitaldian. Bi sari banatu dituzte: On Ekin Saria (2.000 euro) eta Sari Herritarra (1.000 euro + afarira joandakoek ordainduko dutenaren parte bat). Informazio guztia Ekinguneren webgunean aurkituko duzue.



Erretzeari lagatzeko terapia-saio berriak

Ikasturte berriarekin batera hasiko dira Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak antolatzen dituen erretzeari lagatzeko terapiak. Saioak elkarteko psikologo batek emango ditu, eta, adierazi dutenez, "aurrez aurreko eta Internet bidezko saioak izango dira". Izena emateko epea irailaren 10era arte egongo da zabalik. Eibarren, irailaren 21ean hasiko da ekimena eta saioak eguenetan izango dira, 11:00etatik 12:00etara. Informazio gehiago eskatzeko zein izena emateko 943 45 77 22 telefonora deitu daiteke.



Mihiluze saiora publiko gisa joateko gonbidapena

Mihiluze zuzenean ikusteko gonbidapena ailegatu zaigu, Eibarren Akebai plataformaren bidez, eta herritarren artean hedatu nahiko genuke. Grabaketa irailaren 14an egingo da, 10:30etik 17:00etara, eta autobusa antolatuko da. Animatez gero, eibarrenakebai@gmail.com helbidera mezua bidali, izen-abizenekin, eta zuekin harremanetan jarriko dira.

Ipurua Merkatu Plaza elkarteak bilera deitu du gaur arratsalderako

IMP-Ipurua Merkatu Plaza Elkarteak batzarra deitu du gaurko, 18:00etan, merkatu plazan bertan. Deialdiarekin batera zabaldu duten idatzian diotenez, "oraintxe bertan, hiru gara elkartea daramagunak eta erreleboa behar dugu. Jende berriari bidea eman nahi diogu, proiektuaren buru izan daitezten. Guk hor jarraituko dugu, baina bigarren plano batean eta laguntzeko prest. Energia berria, indarra eta talde indartsu bat behar ditugu, amets egiten jarraitzeko".



AUTUAN

1953. URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Urriaren 21ean egingo dute bazkaria 1953an jaiotakoek, aurten 70 urte bete edo beteko dituztela ospatzeko. Joateko interesa dutenek 85 euro sartu beharko dituzte Kutxabanken, ES88 2095 5035 0091 2252 1408 kontuan, izen-abizenak ipinita. Izena emateko azken eguna urriaren 18a izango da.



1958. URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Urriaren 28an ospatuko dute beraien jaia 1958an jaiotakoek: 13:00ean Untzagan elkartu eta argazki ofiziala egingo dute, harmailetan. Bazkaira, berriz, Untzaga Plaza hotolean izango da. Joan nahi dutenek 90 euro sartu beharko dituzte Laboral Kutxan, ES71 3035 0023 96 0231166694 kontuan, kontzeptuan izen-abizenak ipinita. Transferentzia urriaren 15a baino lehen egin beharko dute.



1948. URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Irailaren 29an izango da 1948an jaiotakoen bazkaria. Aurten 75 urte betetzen dituztela ospatu nahi dutenek 90 euro sartu beharko dituzte Kutxabaneko ES16 2095 5035 0091 2272 5628 kontuan (azken eguna irailaren 10a izango da).



Astelehenera arte eman daiteke izena Debarrena Integra programarako

Armeria Eskola Elkarteak Debarrena Integra programaren 18. edizioa antolatu du 2023-2024 ikasturterako. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako programaren helburua, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden langabeak gizarteratzea eta laneratzea da. Ekimenak bi fase ditu. Lehenengoan, matematikak eta gaztelera landuko dira (180 ordu) eta irailaren 18tik urtarrilaren 25era arte garatuko da, astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 13:00era. Eta, bigarrean, FMEE0108 Fabrikazio

Mekanikoko Eragiketa Osagarriak (400+40 ordu PPN) profesionaltasun ziurtagiria emango da, Armeria Eskolan, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 20:00etara. Lan-Administrazioak akreditatutako 1. mailako Profesionaltasun Ziurtagiri bat da, eta gainditzen dutenek praktiketako modulua egin ahalko dute. Curriculuma eta lan-elkarrizketak ere landuko dira. Astelehenera arte eman daiteke izena, telefonoz (943203244/615 775556), armeriaeskola.eus helbidean edo Armeriako 104 Bulegora bertaratzu.

Datorren astean hasiko da Garagardo Azoka

Azken urteotako etena eta gero, aurten berriz ere egingo da Eibar Rugby Taldearen Garagardo Azoka. Irailaren 13tik 17ra izango da, eta Untzagan beharrean Errebal Plazan jarriko dute oraingoan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, beti bezala zuzeneko musika egongo da, km0 janaria eta, nola ez, garagardoa.



Eraisketak izan dira uda honetako protagonistak

Abuztuan jende asko herritik kanpora joaten dela aprobetxatuta, herri barruan egin beharreko obra eta konponketa-lan ugari burutu dituzte aurten. Bolumenari begira, Arragueta kaleko etxe zaharren eraisketa nabarmendu daiteke, baina hori baino lan txikiagoak ere egin dituzte oporretan. Eta oporretatik bueltan ere, obra ugari dauzkagu martxan herriko toki ezberdinetan.



Urtero bezala, herriko ikastetxeetan egin beharreko konponketak ere egin ditu Udalak, ikasleak oporretan egon diren bitartean. Aurten San Andres eta Amaña herri ikastetxeetan egin dituzte hobekuntza eta mantentze lanak, eta jarduketek Eusko Jaurlaritzako Udalaguntza programaren dirulaguntza jaso dute. Azaldu dutenez, “lan hauei esker ikastetxe bietako hezetasuna kendu eta gelen arteko irisgarritasuna hobetu da San Andres eskolan”. Kostu osoa 115.000 eurokoa izan da.

Aipatutako lanez gain, abuztuan eta iraileko lehen astean beste bi obra egingo dira Urkizu eta Amaña ikastetxeetan, patio inklusiboagoak sortzeko eta espazio horiek birnaturalizatzeko. Jarduketa horiek Eibarko Klima eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean (2022-2030) sartzen dira. Plan hori 2023ko urtarri-laren 30ean onartu zen, eta bertan hainbat neurri eta jarduera-ildo ezarri ziren berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta udalerria klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeke. Zehazki, Urkizu ikastetxean 47.899 euro (BEZA barne) inbertituko dira patioaren zati bat birmoldatzeko. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak hartu du parte gune hori diseinatzeko orduan, eta patioa birbanatzea eta espazio batzuk sortzea eskatu da. Hala, mahaiak, eserlekuak eta harmailak izango



dituen esparru lasaia sortuko da, baita mugimendu-gunea ere, naturako elementuekin eta frontoi txiki batekin osatua. Gainera, landaketak izango dituzten hiru eremu sortuko dira eta kortxo naturala eta belar artifiziala bezalako materialak erabiliko dira zoladura bigunagoak eta erabilera anitzekoak izango dituzten espazioak izateko. Amaña ikastetxean, iaz helburu berarekin egindako obra osatuko da material naturalez sortutako jolas-eremu osagarri batekin. Obra horren zenbatekoa 7.705 eurokoa da, BEZa barne.

Sanjuanak igaro eta egun gutxira hasi ziren Txaltxa-Zelaiko auditorioa eta inguruak hobetzeko lanak. Bertako harmailak berritu eta ur-jolasak ipintzeko lanen aurrekontua ia 700.000 eurokoa da eta, besteak beste, harmailen zati bat zurezko moduluekin estali, eskailerak hobetu, kioskoa txukundu, gunea birzolatatu, ur-jolasak jarri eta komun publikoak egingo dira.

Eta aste honetan bertan hasi dira Erreka-txu kaleko 5. zenbakia eraisten eta, obrako hondakinak kentzeko lanak egin ahal izateko, oinezkoentzako desbideratzeak seinaleztatu dituzte Bidebarrieta kalean, kamioiak hortik sartu eta irtengo baitira. Lan horiek sei hilabete iraupena izango dutela dago aurreikusita. Eta Ibergain eta Matsarian ere ibilgailuen trafikoari eragiten dieten hainbat aldaketa egin dira, El Cascoko etxeak eraikitze eta trenbidea estaltzeko lanengatik.



Estaziño inguruan trenbidea estaltzeko lanen ondorioz, Matsariako aparkaleku asko kendu dituzte. Eta aurreko asteaz geroztik, Ego Gaineko autobus geltokia erabiltzen hasi dira. SILBIA HERNANDEZ



AMAGOIA GOMEZ

Oporrak

Hogeita bi urterekin hartu nuen lehenengo aldiz hegazkin bat. Erasmus bekarekin Irlandara ikastera joan nintzen. Gurasoek telefono mugikor bat oparitu zidaten. Deiak egiteko soilik balio zuen Nokia 5110 bat. Edozer gertatuko balitzaigu ere, elkarrengandik hurbil egoteko. Duela hogeita lau urte izan zen hori. Aitzin aroaz hitz egiten ari naizela iruditzen zait. Liburutegira joaten ginen lagunei mezu elektronikoak bidaltzera edota egunkaria Interneten irakurtzera. Lagunek eta familiakoek Belfastetik idatzitako hamaika eskutitz jaso zituzten. Pazientzia behar izaten genuen elkarren berri izateko baina sorpresa ikaragarria izaten zen eskuz idatzitako eskutitza jasotzen genuenean.

Egia esanda ordutik hona oso eskutitz gutxi jaso ditut eta bakanetan hartu dut hegazkina, batez ere oporretara joateko. Udarak Ondarroan, Zumaian, Lekeitioan edota Hondarribian pasatu ditut. Hondartzan. Familian. Gaur egun bidaiak beste era batera bizi ditugula iruditzen zait. Oporrak “kontsumitu” egiten ditugula. Janaria irensten dugun bezala. Garagardoak edaten ditugun bezala. Speed marra bat sartzen dugun bezala. Antsietatez. Korrika. Konpultsiboki. Telefono mugikorraren menpekotasun izugarriaz. Hori bai, elkarren berri berehala daukagu. Une oro partekatzen dugu egiten dugun guztia. Hobeto esanda, komeni zaigun guztia. Lagunekin, familiakoekin edota aurrez aurre ezagutzen ez ditugunekin. Munduari zabaltzen dizkiogu gure bizipenak. Gure istorioak argitaratzeak hobeto sentiaraziko baligu bezala edo norbaiten oniritzia bilatuko bagenu bezala. Bestalde, zenbat eta urrutiago bidaiatu, zorionsuagoak gara. Aberatsak garela sinetsarazi digute eta umezurtz emozional bihurtu gara. Inoiz baino alaiago bizi gara baina suizidio saiakerak eta suizidio tasak gorantz doaz. Hurrengo oporretarako erronka: Soriara mugikor gabe edo Nokia 5110 batekin bidaiatzea. Badakit lagun bati asko gustatuko zaiola ideia hau, bere opor gustukoenak baitira. Miresten dut horrelako jendea. Txikitasuna handi bihurtzen duena eta altxor bat balitz moduan gordetzen duena.

“Hurrengo oporretarako erronka: Soriara mugikor gabe edo Nokia 5110 batekin bidaiatzea”

ABBIE WHITE
english school

MATRIKULA ZABALIK 2023/2024 IKASTURTERAKO

HAURRAK
3 URTETIK AURRERA
METODOLOGIA DINAMIKOA, ALAIA ETA ERAGINKORRA
AKADEMIA HANDITU DUGU- KLASE TXIKIAGOAK ETA
ORDUTEGI ZABALAK ESKURA

HELDUAK
HIZKETAN JARDUTEKO KLASEAK
AZTERKETA OFIZIALEN PRESTAKETA
BIDAIEN PRESTAKETA
BUSINESS ENGLISH... AND MUCH MORE!

BERTAKO IRAKASLEAK ETA ELEBIDUNAK

INFORMA ZAITEZ

 BISTA EDER 7 BEHEA, EIBAR

 691125471

 INFO@ABBIEWHITEENGLISH.COM

 WWW.ABBIEWHITEENGLISH.COM

**LEARN ENGLISH
THE RIGHT WAY!**



MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA IRAILAK 16-22

**BIGARRREN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA
ETA KONPONKETA TAILERRA**
Irailak 16, LARUNBATA
10:00-14:00, Untzaga Plaza
Azokan parte hartzeko ezinbestekoa da
aldez aurretik izena ematea:
943 67 02 49 / www.merkabi.eus/eibar

**BIDE HEZKUNTZAKO HAUR ZIRKUITUA
ETA GINKANA**
Irailak 16, LARUNBATA
17:30 – 19:30, Untzaga Plaza
(Euria egiten badu, Asteleena frontoan)
Adina: 5 – 12 urte
Ezinbestekoa da bizikleta edota patinetara
ekartzea

MARTXA NORDIKOA-HASTAPEENA
Irailak 19 eta 21, ASTEARTEA ETA OSTEGUNA
Bi talde: 11:30 – 12:30 eta 18:30 – 20:00,
Lagarre frontoia
Gutxienez 6 pertsona eta gehienez 20
(bata goizean eta bestea arratsaldean)
Izena emateko epea: irailak 14 (barne)

IBILALDI OSASUNTUSA
Irailak 22, OSTIRALA
Paseoa oinez, hamaitetako osasuntsua
eta anketa terapeutikoen proposamena
Ibilbidea: Ambulatorioa – Unibertsitatea
– Aztain – Ambulatorioa (7.3 km).
Iteera ordua: 10.00etan Ambulatorioan
(Toribio Etxebarria, 29)
Taldea: gutxienez 6 pertsona
eta gehienez 30
Izena emateko epea: irailak 20 (barne)

AUTORIK GABEKO EGUNA
(Udalbura dohainik)
Irailak 22, OSTIRALA

**Konbinatu
eta mugitu!**

 *Jardueretan
izena ematea
943 70 84 08*

 *Azokan
izena ematea
943 67 02 49*

**Aldez aurretik izena eman behar
den jardueretan onarpenaren
baleztapena jaso beharko da.**



“Askok ez dute profesionalak ikusten, futbolean jokatzan duten neskak baizik”

AMAIA UGARTE • Kirol kazetaria



Futbolak eremu maskulinoa izaten jarraitzen badu ere, azken Mundialak ondo erakutsi du emakumezkoek emandako aurrerapausoa kirol horretan. Hala ere, arrakala ez da nolana hikoia oraindik: estatuan 1. Mailan jokatzan duten gizonezkoendako gutxieneko soldata 186.000 eurokoa da; emakumezkoena, 16.000koa. Baldintza duinak izatetik aparte, emakumeek futbolari izaten lagatzea besterik ez dute eskatzen.

Emakumezkoen futbola ate joka indartsu dabilen honetan, aukera aprobe txatu dugu Amaia Ugarte kazetari eibartarrarekin egoteko. Oso gertutik jarraitzen du futbol hori eta abuztuan ere jarraipen zehatza egin dio Mundialari, *Gara* egunkarian eguneroko kronikak eginez.

Inguruan baduzu emakumezkoen futbola zuk bezain beste jarraitzen duenik? Zergatik egin duzu horren aldeko apustua?

Lanetik kanpo gutxi, egia esateko. Baina *Garan* izan genuen nagusi bat, Juan Carlos Elorza zena, emakumearen kirolaren aldeko apostu sendoa bideratu zuena. Hori dela-eta, izango dira 12 bat urte aurrerapausoa eman genuela, astero sekzio bat emakumezkoaren futbolari eskaintzeko. Futbolaren garapenak eta eskutik joan den arreta orokorrak gure dedikazioa ere zabal tzera eramán gaitu. Baina ez zen nire apostua izan.

Zein desberdintasun nabarmenduko zenuke, izatekotan, gizonezkoen futbolarekiko? Jokoa ez da garbiagoa, akaso?

Beste kirolean suertatzen den antzera, argi dago gizonezkoak indartsuagoak eta azkarragoak direla. Baina alde hori kontuan izanda ere, orain aldeak txikiago tzen doaz formazio prozesuan haiek izaten dituzten erraztasunera emakumezkoak gerturatzen doazen neurrian. Profesional mailako partiduetan, momentuz behintzat, emakumezkoen jokoa garbiagoa da, eten gutxiago izaten da, jarraikortasun handiagoa dute... eta urtetik urtera asko hobetzen doa. Azken Mundialaren bueltan askok esan didate "zein azkar

jokatzan duten, zelako jokaldi politikak...". Baliabide gehiagorekin, umetatik hasita, hobekuntza teknikoak ere nabaritzen dira prozesuaren amaieran.

Aldeei eutsiz, igual handiagoak dira zelai kanpokoak, ezta? Entrenamenduetarako egokitasuna, nutrizionisten beharra eta halakoen falta, esaterako.

Askok diote zelan eskatu daitekeen kobratzea produzitzen ez dena. Baina jokalariek eurek ere ez dute eskatzen gizonezkoen soldata berberak. Megan Rapinoe estatubatuarra (munduko jokalaria onena izandakoa) ere argi dio, eskatzen dena dela neskek hasieratik euren afizioa garatzeko antzerako baliabideak izatea. Hau da, ez izatea azkenak entrenatzen, dutxatzeko ere ur berorik gabe, zelai kaxkarretan ez jardutea, esperientzia gutxi duten entrenatzaileekin. Formazioan aukera berdina eskainiz, hobekuntza asko nabaritzen da.

Gustora geratu zara Australia eta Zeelanda Berriko Mundialarekin? Zeozer berezirik bota duzu faltan?

Bai, kirol arloan ederra izan da. Bazegoen hor zalan tza: lehen aldiz 32 selekzio izanik Mundialean, ea ahulenek zelan erantzungo zuketean. Bada asmatu dute, euren arteko aldeak asko murriztu direlako. Orokorrean, belaunaldi berriekin asko aurreratu dute

"Baliabide gehiagorekin, umetatik hasita, hobekuntza teknikoak ere nabaritzen dira prozesu amaieran"



Gure herriko kazetariak gertutik jarraitu du Australia eta Zeelanda Berriko Mundiala. Pozik nabaritzen zaio bitzitakoarekin. EKHI BELAR

selekzio guztiek. Oraindik oztopo haundiak gainditu behar badituzte ere, teknikoki asko egin da aurrera eta ezin da ahaztu nutrizionista, psikologo, sendagile eta beste hainbat arlotako laguntza.

Zein hitzekin laburbilduko zenuke ekitaldia? Arrakastatsua izan da? Ezustekoek ere izan dute pisua azken emaitzetan?

Gauza biak: arrakastatsua izan da eta ezustekoak ez dira falta izan. Jarraipenari begira, marka guztiak hautsi dira: Australian lepo bete zirelako estadioak, eta Zeelanda Berrian ere jendetza izan zelako. Telebistan izandako jarraipena ere sekulakoa izan zen Australian. Europan ere ondo egon da, nahiz eta partiduak jokatzen ziren ordutegiak arazo izan diren guretzat askotan, hemen desorduetan egokituta. Sare sozialetan ere asko jarraitu da Mundiala. Ezustekoak, bestalde, ez dira gutxi izan; orain arte atzerago zeudenak gero eta gertuago direlako. Abiadura desberdinetan ematen bada ere, indarrak berdintze horrek mesede besterik ez dio egiten kirolari, emozioa handitzeaz batera.

Selekzio bat aipatzekotan, zeinekin geratuko zinateke? Zergatik? Dezepziorik izan duzu bateren batekin?

Espaniak izan duen papera nabarmendu behar da, ikusita aurretik zer historia zuen. Oso ondo jokatu dute, eta batez ere kanporaketetan erakutsi dute joko bikaina. Japoniaren jokoak *Oliver eta Benji* gogorarazi zizkidan, marrazki bizidunena. Denetarikoko jokia izan

da, eta talde ahulagoek ere jakin izan dute gauza politak erakusten. Dezepzioa, izatekotan, AEBena izan daiteke, ia orain arte munduko selekzio handiena izan delako; egia esan, zalantza askorekin heldu ziren, jende asko falta zitzaien, eta belaunaldi aldaketa ere izan dute. Pena hartu dut Alemaniarekin ere, euren zalea naizelako eta aurreko Eurokopian, finalista izateaz aparte, joko bikaina erakutsi zuelako. Lau faborito nituen: aipatutako AEB eta Alemaniarekin batera, behintzat brontzea bereganatu duen Suedia eta finala galdu zuen Ingalaterra. Hain gaizki ere ez nintzen ibili.

Taldeen arteko parekotasunak gora egin du? Joko estiloetan ikusi duzu alderik?

Guztiek dute euren nortasuna; batzuk joko intentsagoarekin, beste batzuk baloia ikutzerakoan, kontraerasora gustora dabiltzanak ere badira... UEFAk entrenatzaile onena izendatu duen Sarina Wiegman, Ingalaterrako hautatzailea, asko gustatzen zait joko desberdina eskatzen duten partiduetara bikain moldatzen delako horiek eskatzen dutenera.

Afrikako taldeak, bereziki, zelan ikusi dituzu?

Argi dago aurrera egin dutela. Hegoafrika lehenengoz sailkatu da kanporaketak jokatzeko; Nigeria bigarrennez sartu da finalaurrenetan eta penaltietan galdu zuen Ingalaterrarekin, partiduan zehar gehiago izanda; eta Zambiak ere borrokatu du, arazo asko izan baditu ere kirol zein kirol kanpoko arloetan.



Zelako lana egin dute Eibar FT-n jardundako jokalariek: Thenbi, Kundananji, Matlou...?

Thembi izarretako bat izan da, hemen gozatu genuenaren aurrean izan gara berriro. Atletico de Madrid taldean ez zuen horrelako zorterik izan eta, ondoren, AEB-etan lesio larria izan zuen, baina errekuperatu da. Hegoafrikan taldekide izan duen Noko Matlou Eibar FT-ko defentsa hirugarren partiduan sartu zen lehian, maila ona emanda. Azkenik, Zambiano Racheal Kundananjik ikusgarri jokatu du, beti bezala. Bera ikusteko aukera izan dezakegu ligako lehen partiduan, Madrid taldearekin etorriko baita Ipuruara.

Zelako jarraipena izan du Mundialak: asistentzia maila partiduetara, telebista bidezko audientziak...?

Marka guztiak hautsi dira Mundial honetan, egia bada ere partidu gehiago izan direla; baina batzabesteko kopuruak gora egin du nabarmenki, batez ere Australian.

“Muga guztiak hautsi dira Mundial honetan, estadioetako zaletik hasi eta audientziekin jarraitzeko”

Emaitza horiek ikusita, bertako gobernuak 200 milioi dolar ipini ditu kirola orokorrean hartuta programa bat abiatzeko. Australia osoa batu da selekzioarekin. **Zelan kalifikatuko zenuke FIFArein jarduera? Aurreko Mundialean emandakoa hirukoiztu arren, 140 milioi euroak iazko Qatar-eko Mundialeko 404tik urrun geratzen dira, ezta?**

Sarien aldetik ondo ikusi dut aurrerapausoa; gainera, hurrengo Mundialetarako badago asmoa gizonen eta emakumezkoen sariak berdintzearena. Ingresoak berdinak ez izatean... Badira beste gauza batzuk zatarrago ikusi ditudanak: ortzadar besokoak debekatzea, aldarrikapen batzuk egiten ez lagatzea, Infantino FIFako presidentearen adierazpen batzuk...

Azkenean Europar Batasuneko Radiodifusioekin akordioa lortu bazen ere, ez da lotsagarria TVEk milioi bat euro eskaintzea iaz Qatar-ekoarengatik 32 milioi ordaindu zituenean?

Ezin da konparatu. Batzuetan apostuak egin behar dira, eta honakoan ez dakit ez den egon propaganda gehiago benetako apostua baino. Hasieran ez zen egon, eta gero behartuta. Europako telebista publikoekin batuta, azkenean 64 partidutik 25 eskaini ditu TVEk: lehen fasean, egunero jokatzen ziren lautik bat, eta ondoren, kanporaketetan bana. Aldiz, orain dela lau urte *Golek* hartu zituen Frantziako Mundialaren eskubideak eta partidu guztiak eman zituzten. Eta Iparraldeko lagunek partidu guztiak ikusteko aukera izan dutenean, guk FIFako web orrira jo behar izan dugu, TVEk euren web orrian ere ez zituelako eskaintzen.

Espainiako RFEF-k munduko txapeldun izandako baikoitzari 248.000 euro ematea zelan ikusi duzu?

Lehen aldia da, eta bazen ordua. Baina gero ikusi behar da diru hori jokalariei ematen zaien edo federazio bakoitzari, hortik hainbat arazo sor daitezkeelako. Lehen ere izan dira horrelakoak, eta Zambian kasuan horrelakorik ere izan da, beste gauza larriago batzuekin batera.

Maider Castillo gure herriko jokalaria-ohia eta Levante taldeko zuzendari nagusiak honakoa dio: “Emakumezkoen futbolak ez du sortzen gastatzeko eskatzen zaiona”. Zer irizten diozu?

Jokalari izandakoa dugu Maider, oso ona gainera, garai txarretan futboletik bizitzea lortu zuena. Orain, jakina, klubaren barrutik beste ikuspuntu bat dauka. Eta arrazoia ere badu, gaur egun hemengo Ligako talde guztiak defizitarioak direlako, Bartzelona kenduta. Hori lekuen arabera ere bada, AEB-etan sortzen duelako, bai, diru hori. Dena dela, profesionalizazioarekin gauza politak lortu dira dagoeneko: telebista eskubideak hor daude, komertzializazio bidea zabaldu da... Federazioa izan da hor oztupo, dirua kendu eta kendu ibili delako, CSD-k (Kiroletako Kontseilu Gorena) beste aldera begiratzen zuen bitartean. 2020an hitzarmena sinatu zuten, jokalariek arrazoia dute... baina ingresoak direnak dira.

Mundialeko txapeldunei itzala egin dien affaire-arekin emakumezkoen futbolak irabaztekorik baduela uste duzu? Matxismoa, paternalismoa eta halakoak orokorrean gizartean baino presentzia handiagoa dute arlo horretan?

Seguruenik bai, futbola oso mundu maskulinoa delako. Nire sententzia da federatiboek, klubek, kazetariek, ikusleek... ez dituztela kirolari profesionalak ikusten, futboleant jokatzeko duten neskak baizik. "Ondo tratatzen ditugu" diote, baina ez da gauza bera, profesionalak dira-eta. Azken affaire horretan aurretik Espainiako selekzioak zekarren historia eta Rubialesen nortasuna batu dira. Hala ere, hori guztia lagungarri izan daiteke. Eztabaida sortu du, eta ez bakarrik futboleant: keinu horiek normalak dira? Ez hainbeste? Gazteetan pentsatzen dudanean, alde horretatik begiratu hausernarekin egokia derizot. Futbolari mesede egingo dion? Datorren urtean esango dizut.

Mundialak izango du eraginik emakumezkoen futbol zabaltzeari begira? Espainiak irabazteak, Putellaren Urrezko Baloia... halakoek bultzatzen dezakete gure inguruan gero eta neska gehiago gerturatzea futbolera?

Argi dago bestela ere zaletasuna goraka doala. Ipuruan neskato asko ikusten dira partiduetan, Eibarko futbol eskolan ere nabaritzen da hori, fitxak ere hazten doaz. Eta kuriositatez telebista piztu duenak ere ikusi du ondo jokatzeko dutela. Partidu txarrak ere badaude, baina gizonetako bezala.

“Eibar FT gorengo mailan izanda, Ipuruan sekulako taldeak ikusteko aukera izango dugu”



Thenbi Kgatlana hegoafrikarra eta Racheal Kundanani zambiarra Eibar FT-rekin nabarmendu ziren lez destakatu dute Munduarean.

Zelan ikusten duzu Eibar FT-k berreskuratu duen gorengo mailan? Osatu duen taldearekin itxaropentsu zaude denboraldi berriari begira?

Oso pozik, kazetari zein zaletu mailan. Ipuruan sekulako taldeak ikusteko aukera izango dugulako; ea zenbat jende gerturatzen den. Lehen esandakoaren bidetik, emakumezkoen futbolak badu beste giro bat, jende desberdina batzen da: familia asko izaten da, ume asko. Publikoaren jarrera ere bestelakoa da: zelai barruan garbiagoa bada, harmailetan ere arnasten da giro hori.

Azkenik, datorren asteburuan hastekoa den Ligaren aurrean greba deialdia zabaldu da. Zelan ikusten duzu egoera? Aurrera egiteko oztupoz beterik?

Oztupoak ez dira gutxi izango. Gaur (astelehenean) kontziliazio-ekitaldia dute eta seguruenik grebara helduko dira. Konponketa ez da erraza, arrazoia alde bietan dagoelako, eztabaida gehienetan bezala. Onartutako hitzarmenean soldata oso baxuak ziren, ingresoak ere ez dira hain altuak, eta Federazioak bi urtetan dirua kendu besterik ez du egin, klubak kalterako, CSDk eta Gobernuak beste aldera begiratzen zuten bitartean. Espainian Liga Profesionalaren sorrera erreminta bereziana izan da futbola garatzeko.

“Herriarentzat gauza on asko egitea, berritzea eta jendearen gustokoa izatea nahiko nuke”

ANDONI ZABALA • Kultura eta Gazteria zinegotzia



Udal Gobernu berriak, abuztuko oporrak tarteko, hasi du bere bidea. Azken Udal Hauteskundeen ondoren, aurpegi berriak ditugu udaletxean, batzuk herriarentzat ezagunak diren arren. Horietako bat da Andoni Zabala, Kultura eta Gazteria sailtako zinegotzia. Oraindik kargura egokitzen diharduela aitortu digun arren, herriari gauza asko eskaintzeko gogoz dagoela esan digu.

Politikaren munduan ematen dituen lehen pausoak dira Zabalarentzat. Kulturarekin zerikusia duten ekintzetan ikusi izan dugu, baita gazteriarekin lanean ere (Itzamna akademian egiten du lan), eta hain zuzen ere arlo bi horietan izango dugu lanean Udalean.

Zer moduz lehen hilabeteak zinegotzi bezala?

Oso ondo etorri zait hauteskundeak uda inguruan izatea. Izan ere, akademian lan-karga gutxiago izan dugu eta, ondorioz, denbora gehiago eduki dut Udaleko postu berrira egokitzeko. Dena dela, abuztua aurretik hilabete bakarrak egon nintzen lanean eta, esan bezala, gero oporrak izan ditugu, beraz, ez dut gauza larregirik egiteko aukera izan. Lurra hartzen ari naiz oraindik.

Politikaren mundua berria da zuretzat. Moduren batean prestatu zara horretarako?

Prestaketa mentala hilabeteetan zehar egin dut, baina batzuetan, gauza bat egiteko prestatu arren, ezin zara gauza edo alderdi guztietarako prestatu. Arlo sozialean nahiko aktiboa naizenez, jendearekin berba egitea ez zait inoiz inporta izan eta alde horretatik oso ondo, baina gero beste hainbat gauza suertatzen

dira eta hori beste kontu bat da. Bestetik, inoiz ez naiz izan inoren buruzagia, orduan, asko kostatzen zait gauzak modu batean edo bestean egin behar direla esatea. Aholku eta babes asko eskatzen dut, eta pentsatzen dut hori ondo dagoela, horrelako kontuetan berria naizenez gauza askok nola funtzionatzen duten ez dakidalako. Lasai nago, eta oztopoak datozen neurrian gaintutuko ditugu.

Beraz, atek irekita lagatzen dizkiozu gure herrian kulturaren eta gazteriaren inguruan lan egiten diharduen jendeari?

Nire ideia jendeak nirekin berba egitea da. Hau da, ez daitezela atzetik kezaka ibili hau edo bestea egin ez dugulako, baizik eta niregana etortzea eta gauzak esatea eta proposatzea. Ideiak jasotzea eta jendearekin berba egitea gustatzen zait. Gero, baloratuko dugu egingarriak diren ala ez, baina herritar guztientzat irekita nago.

Kultura eta gazteria arloan lan egin duzu zure bizitzan zehar, baina orain beste alde batetik jardungo duzu. Nola animatu zinen politikara jauzi ematera?

Kostatu zitzaidan. Jon Iraolak proposamena egin zidanean zur eta lur geratu nintzen eta pentsatu behar nuela erantzun nion. Emaztearekin eta lagunekin



Mika Fest jaialdia antolatatu du Udalko Kultura sailak Hego Koreako kultura herrira hurbiltzeko. EKHI BELAR

berba egin eta hilabeteetan buruari bueltak eman ondoren, baiezkoa eman nion. Izan ere, aukera hau berehalakoa da. Orain hartuko ez banu, agian inoiz gehiago ez nuke aukera bera izango. Orduan, pentsatzen dut, Eibar nik maite dudak bezala maite duenak herriaren alde gauzak egiteko aukera badu, zerbait egin beharko lukeela, eta horregatik eman nuen baiezkoa. Herriarentzat gauza on asko egitea, berritzea eta jendearen gustokoa izatea nahiko nuke.

Pertsonalki, zer uste duzu eskaini ahal diozula herriari?

Ez dut esango oso gaztea naizenik, baina ez dut neure burua erretiratu baten moduan ikusten. Orduan, gazteei kultura arloa pixka bat hurbiltzea eta gazteen mundua zabaltzea gustatuko litzaidake. Ez dut esan nahi den-dena musika eta jolasak izango direnik, baina kultura arlorra berritasunak ekartzea gustatuko litzaidake, gutxienez aurretik Eibarren egin ez diren gauzak eskaintzea.

Horren adibide da asteburuan egingo den Mika Fest, ezta?

Hori da. Austin Pak dantzari korear famatua ekartzeko aukera proposatu ziguten, hain justu ere Arra-

“Ideiak jasotzea eta jendearekin berba egitea gustatzen zait. Ondoren, baloratuko dugu egingarriak diren ala ez”

teko Jaien asteburuan, baina orain izan behar zen edo inoiz ez. Beraz, oso interesgarria eta berria zela iruditzen zitzaigunez, Mika Fest antolatzeko erabakia hartu genuen. Orain arte inoiz ez da gertatu Hego Koreako kultura Eibarrera ekartzea eta, era berean, eurek ere hemengo kulturaren zatitxo bat eurekin eramatea nahi dugu, gutxienez Eibarren zer egiten den ikus dezatela.

Zelako gauzak egingo dira Mika Festen?

Hasteko, Untzagan aizkolarien erakustaldia egingo da, korearrek ikus dezaten Euskal Herrian nolako gauzak egiten diren. Arratsaldean, Coliseoko ateak irekiko ditugu eta e-kirolei buruzko dokumentala emango

ELKARRIZKETAREN
BIDEOA

dugu (Alex Robleño eibartarraren ‘El corazon de los Esports’), Hego Korea baita e-kirolak gehien bultzatzen dituen herrialdea. Ondoren, Kpop musikaren ‘cover’ lehiaketa egingo dugu. 20 plazarentzat tokia genuen eta 40 taldetik gora apuntatu dira. Espainia hegoaldeko jendea dator, Bartzelonakoak ere eta, gehien bat, Euskal Herrikoak. Batzuk profesionalak dira, baina beste batzuk oso amateurak. Tartean, Austin Pakekin dantzatzeko aukera egongo da. Sare sozialetan ‘reel’ bat egin zuen eta bertan agertzen den dantza berarekin egiteko aukera izango du nahi duenak. Coliseoko saioa zuzenean jarraitu ahal izango ez dutenez pantailak jarriko dira Errebalen, eta Coliseoko saioa amaitzen denean, Errebalen ‘photo-call’-a eta Koreako kulturaren eta gastronomiaren ikur diren gauzak ikusi, erosi eta dastatu ahal izango dira. 23:30 ingurura arte musika egongo da eta ordua arte iraungo du Mika Festek.

Horrelako ekintza gehiago egitea espero dezakegu etorkizunean?

Agian ez dira izango inoiz ikusi ez ditugun gauzak, baina gutxienez bai buelta bat ematea edo gauza ezberdinak eskaintzea. Gauza batzuk begiratzen ari gara, baina oraindik ezin dezakegu ezer aurreratu. Esan bezala, oraindik lurra hartzen nago eta ez dakit zein puntura arte gauzak berriztu daitezkeen. Hala ere, ez dut hain egolatra izan nahi. Gauzak ondo daude, baina freskotasuna ematea nahiko nuke.

Zentzu horretan, zer uste duzu falta zaiola Eibarri kultura arloan?

Egiten diren gauzen inguruan belaunaldi aldaketa bermatzea falta da. Hau da, gauza asko egiten dira, baina gauza horietan dabilen jendea zahartzen doa, gauza batzuetara jende gutxi joaten da eta batzuek aldaketak ez dituzte hain ondo hartzen. Hortaz, gazte jendea hemengo kultur eskaintzaz gozatzera, ekintzak antolatuz, gauzak sortuz eta abar egitera animatzea gustatuko litzaidake, hau da, belaunaldien erreleboa bultzatzea. Badakit zaila dela jende guztiarekin adostasun batera heltzea, baina saiaturiko gara.



“Gazteei kultura arloa pixka bat hurbiltzea eta gazteen mundua zabaltzea gustatuko litzaidake”

Eta gazteria arloan zein behar nagusi ikusten duzu?

Irakasle moduan ibili naiz urte askotan zehar eta gazteekin konektatzea zaila dela ikusi dut, eta zahartzen zoazen neurrian are zailagoa dela ikusten duzu. Euren inguruan interesatu zaitezke, baina askotan itxi egiten dira. Ez dut esaten den-denak berdinak direnik, ez da hori, baina zaila da. Orduan, gazteriaren parte hartzea bilatzea gustatuko litzaidake. Ez jaietan bakarrik, hor parte hartzen dutelako, baizik eta beste arlo batzuetan. Beraz, eurekin berba egitea gustatuko litzaidake eta elkarrekin lan egin.

KITTONBOLIA



Badator Kittonbolia! Inoiz baino opari gehiagorekin

Udako oporrak amaitu berritan, Arrateko Amaren jaiak une ezin hobea dira lagunekin, familiarekin eta bizilagunekin berriz elkartzeko. Ilusioz beteriko ospakizuna da eibartarrontzako, eta oso lagungarria ikasturte berriri indarrarekin aurre egiteko.

...eta kitto! Euskara Elkartearentzat ere ikasturtearen hasiera markatzen dute Arratiek. Bertso-afaria izango da irailaren 7an Tiro Pitxoian eta Arrate egunean **Kittonbolia!** Urtero moduan, Eliza parean egongo gara, 10:00etatik aurrera.

Aurtengo **Kittonbolia** ik inoiz izan duen opari-porzentaje handiena izango du, eta 2003az geroztik izan den bezala, txartelak euro batean erosi ahal izango dira. Mundu osoan igo ez den prezio bakarra Arrate eguneko tonbolako boletoarena izango da!!! Gazta, txuleta, bazkariak, otarrak, motxilak, urdaiazpikoa, tablet-a, argazki-kamera, ardo-botilak, telebista, Coliseorako sarrerak, kamisetak, diskoak, opari-txartelak... eta beste ehundaka sari dituzue zain.

Urtero moduan Eibarko elkarte, denda, taberna eta enpresen laguntasunari esker tonbola opariz josita ikusiko duzue. Eskerrak eman nahi dizkizuegu opariak eman dituzuen babesle guztioi, eta alde aurretik eskerak eman nahi dizkizuegu egunean bertan boletoak erostera hurbilduko zareten guztioi ere.

Dakizue, tonbolatik lortutako dirua Eibarren euskararen alde lan egiteko erabiliko du Euskara Elkartek. Urteko programa aurrera eramateko ezinbestekoa dugu. Beraz, berriro ere, eskerrik asko zuen babesagatik. Barixakuan, 10:00etatik aurrera, beste urtebetez Arraten ikusiko dugu elkar.

**Boletoaren
prezioa: 1 €**



ANTOLATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

LAGUNTZAILEAK

- WAPOS TXAKUR- ILEAPAINDEGIA
- ADARABAR



- AGUIÑASPI TABERNA
- AKARA TABERNA
- ALOHA TABERNA
- ANA HERGUIJUELA ILEAPAINDEGIA
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDENDA
- ASPE PILOTA
- ASTELENA GASTROBAR
- ATEUN HARATEGIA
- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- AZITAIN GASOLINDEGIA

- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BAGLIETTO DEKORAZIOA
- BAISI TABERNA
- BALI GIMNASIOA
- BENICOPA ELEKTRODOMESTIKOAK
- BIRJIÑAPE BERRIA TABERNA
- BORDA TABERNA
- BULEBÚ JATETXEA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA
- CAPI ESTETIKA
- CHIC ESTILISTAS
- CHIDO JATETXEA
- CLOSET
- COMERCIAL ZABALA
- DANDARA JANTZIDENDA
- DENETIK
- DIRDAI BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTIKOAK
- EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIA
- EIBAR ESKUBALOAIA
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- EL VESTIDOR JANTZIDENDA
- ELITE OFICINAS
- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA
- FOTOPRIX- IKATZ



- GERRITEK INFORMATIKA
- GOIKO LUZ
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA

- GURE ESKU DAGO



- GURIDI TABERNA
- HARTARA ARTISAU OSAGARRIAK



- HELMET HOUSE
- IBARKURUTZE FRUTADENDA
- IBONE ESTETIKA



- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- IKUSI EIBAR JANTZIDENDA
- INDUSTRIAS M A I L
- INDUSTRIAS ROSI
- INGURU ABENTURA
- IPAR SURF SKATE ESKOLA
- IREI ESTETIKA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IXUA HOTELA
- IZADI LORADENDA
- IZANE DEKORAZIOA
- IZASKUN HARATEGIA
- JAUREGI ETXERAKO TRESNERIA
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA
- JORGE VEGA S.L. IGETLSERITZA
- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KANTOI GASOLINDEGIA
- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA



- KERALA ESTETIKA
- KHOL ILEAPAINDEGIA
- KIA NAIA CAR
- KLAUS DEKORAZIOA
- KOKEIN TALDEA
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KRESALA ARRAINDEGIA
- KULTU TABERNA
- LAHIDALGA ZAPATADENDA
- LAKETT ESTETIKA
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK
- LOLA 'S JANTZIDENDA
- LUSAI JATETXEA
- MARSÍ LOREDENDA
- MOAPICS
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NEURE DEKORAZIOA
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- OBERENA HARATEGIA

- OTEGI HARATEGIA URKIZU
- OTEGI HARATEGIA SOSTOATARREN
- PISSA ZAPATADENDA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA



- PIRRITX ETA PORROTX
- S.D. EIBAR FUNDAZIOA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TACTO ESTETIKA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TWINS JANTZIDENDA
- TXUKUNA MERTZERIA
- TXUTXUFLETAS GOZOKIAK
- UMEA JANTZIDENDA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- XARE JANTZIDENDA
- YRAOLAGOITIA LIBURUDENDA
- ZAIZOI TABERNA
- ZELAI- BIDE TABERNA
- ZORIONAK LUDOTEKA
- ZUBI GAIN BERRIA TABERNA

**ESKERRIK ASKO
LAGUNTZAILE ETA
PARTE-
HARTZAILE
GUZTIEI!!!**

JAI EGITARAU JAI EGITARAU JAI EGITARAU

EGUENA 7

- **18:00 Meza.** Ondoren Salbea, txupinazoa eta kanpai-errepika.
- **19:00 Herri-kirolak.**
- **21:00 Bertso-afaria.** Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Jesus Mari Irazu eta Maddalen Arzallus Tiro Pitxon jatetxean. Antolatzailea: ...eta kitto!
- **23:30 Kontzertuak.** Kokein + Sua.
- **00:00-03:00 Sexu Bizi-Gune Morea,** sexualitate eta harreman osasuntsuak bultzatzen dituen gune mugikorra. Andretxearen eskutik.



Autobus zerbitzua

- **Hilaren 7an.**
Eibar-Arrate: 17:00/21:30, ordu erdiro
Arrate-Eibar: 17:30/22:00, ordu erdiro
- **7tik 8rako goizaldean.**
Eibar-Arrate: 01:00/08:00, ordu erdiro
Arrate-Eibar: 01:30/08:30, ordu erdiro
- **Hilaren 8an.**
Eibartik Arratera: 08:30etik 22:30era, 12 autobus gora eta behera, bete ahala
- **8tik 9rako goizaldean.**
Arratetik Eibarrera: orduro

BARIXAKUA 8

- **10:00** Azitaingo surtidoretik irten eta Arratera igoera, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik. Salda, txorizoa eta ardoa Zesteroko iturrian Jai Batzordeak antolatutik.
- **10:00 Kittonbolia.**
- **10:30 Kalejira.** Eibarko Usartza Txistulari Taldea.
- **11:00 Meza nagusia.** Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Udal Txistulari Taldeak Arrateko Amaren ezpata-dantza egingo dute. Ondoren, Arrateko Amaren **prozesioa**, Usartza, Kezka, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak, bertsolariak eta agintariekin.
- **12:30 Arrateko Amaren Dantzak.** Kezka Dantza Taldea eta Usartza Txistulari Taldea.
- **13:30 Trikitilariak** (Jainaga eta Narbaiza) **eta bertsolariak** (Telleria eta German Meabebasterretxea).
- **17:00 Bertsolarien saioa.** Telleria eta German Meabebasterretxea.
- **17:00** Arrateko Amaren **Hiru-Txirlo Saria.** Asola Berri Elkartearen eskutik.
- **17:30 Dantza Solte Txapelketa.** 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidatuak (bost 15 urtetik gorakoak eta beste bost beherakoak).
- **18:00-21:30 SASOIA**ren eskutik aisialdi-eremuan alkohol kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko kanpaina.
- **18:30-21:00 Dantzaldia.** Mugi Panderoa taldearekin.
- **23:30 Kontzertuak.** Hofe x 4:40 / Opilak
- **02:00-05:00 Sexu Bizi-Gune Morea,** Andretxearen eskutik.

DOMEKA 10

- **10:30 Simon Aldazabal XXVIII.** Antxitxiketaldia. Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).
- **11:00 Meza Nagusia bertsolariekin.** Ondoren **prozesioa**, Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
- **12:00 Paella Lehiaketa.**
- **14:00** Paella lehiaketaren sari banaketa.
- **17:30 Idi-probak.**


Link Idiomas
 MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438
-INGELES- KLASEAK GOIZ ETARRATSALDEZ
 UME, GAZTE ETA HELDIENTZAT
 TALDE MUGATUAN
 BAKOITZARI EGOKITUA
 ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA
 CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA
 MAILA GUZTIAK
 Cambridge English Language Assessment
 Exam Preparation Centre


www.linkidiomas.com
 Juan Gisasola, 5
 943 20 39 59

MATRIKULA Adolfo ZABALIK JAINAGA
 Urki, 25-1. esk.
 943 20 62 66
 676 72 95 51


Trikitixa eta Pandero Eskola


GATE English School
 Lorea Hernández Arizaga
 Ingeluz Fiziologia Lizenziatua

Urtzalle, 8 behea
 20600 EIBAR
 905 716 717

FUNEUSKADI
 Suroa Anteaia
FUNERARIA MUGICA
 Funeuskadi


TANATORIO EIBAR
TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Oteola, 27
Elgoibar: Xibilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 18

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

EPA EIBAR HHI
GELA DIGITALA: Oinarrizko Informatika eta Tresna Digitalen IKASTAROA (1. eta 2. mailak)
MATRIKULA zailte: izen-ematea zabalik **IRAILEAN**
Isasi, 39
 943 20 88 56
 673 11 81 81




Baimendutako harategia
Euskal Okela
 Carniceria autorizada

Bidebarrieta, 20
 Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
 943 20 16 69
 @Oberenaharategia




ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
 Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Musika jaialdien antzera

Arrateko zelaian

Arrateko Jaiek asteburuarekin bat egiten dutela aprobeztatuta, saio bikoitza izango dugu aurten Arrateko zelaian eta, beraz, musika gehiago. Eibarko zein Euskal Herriko beste toki batzuetako taldeak zuzenean entzuteko aukera izango dugu, urte asko oholtaza gainean daramaten taldeak eta gaur egun gero eta oihartzun handiagoa izaten ari direnak.



HOFE X 4:40

Igotz Mendez abeslariak (Hofe) eta produkzio lanean aritzen diren Xabier Lafuentek eta Marcos Galechek (4:40) osatzen dute 'Hofe x 4:40' hirukotea. Taldearen ibilbidea oso luzea ez den arren, hiru lagunek bost urte baino gehiago daramatzate Iruñeko musika eszenan egurra ematen. Adibidez, Nibbass kolektiboko kide izan ziren.

2022an, 'Amodioa' lehen mixtapea kaleratu zuten Oso Polita zigiluarekin eta berehala lortu zuten oihartzuna, bertan bildu baitzituzten Chill Mafiako Kiliki eta Suneorekin batera 2 Esku 2 Laban abestia edo MzMz (Tek) abestia, besteak beste. Hainbat genero uztartzen dituzte bertan, hala nola, trap, new wave, synth pop, garage, pop eta rap doinuekin. Horrela, abesti dantzagarriak sortu dituzte, letra adierazgarri eta indartsuekin, zinema munduko erreferenteei men eginez eta estetika bisuala asko landuz.

Azken hilabeteotan hainbat kontzertu eskaini dituzte han eta hemen, baita BBK Liven ere, eta Arrateko zelaian giro berezia sortuko dutela ia ziurra da, hankaz gora jarritz.



KOKEIN

‘Kokein’-ek ez du aurkezpenik behar. Herriak eman duen musika talderik garrantzitsuenetakoa da eta, beti bezala, gozamena izango da eurak zuzenean ikustea.

1999an sortua eta beti indartsu, eibartarrek mar-txa betean jarraitzen dute ‘Atomika’ diskoa kaleratu ondoren. Rock doinuak ardatz, taldeak izan duen bilakaera atzeman daiteke bertan eta, burua astintzeaz gain, gorputza mugitzeko erritmoak oparitzen dizkigute. Eta diskoa indartsua bada, prestatu zuzeneko bizitzeko, eztanda egiten duen taldea baita.



MUGI PANDEROA

Zaila zirudien Egan talde mitikoaren lekukoa hartzea Arrate Eguneko erromerian, baina Mugi Panderoa taldeari esker festa giroak bizi-bizirik jarraitzen du gauak Arrate iluntzen duen arte.

Eibartarrek modu bikainean jartzen dute dantzaz inork baino hobeto ezagutzen duten Arrateko zelaia eta estilo askotako doinuak eskaintzen dituzte horretarako. Gainera, nekaezinak dira. Beraz, gorde indarrak barixaku arratsalderako, ezin duzu huts egin eta!



SUA

Anek (ahotsa), Janirek (baxua eta teklatuak), Julenek (gitarra) eta Estebanek (bateria) sortu zuten taldea 2018an eta ia hasieratik eman zuten zeresana, 2019an Gaztea Maketa Saria irabazi baitzuten. Gero, 2020an, ‘Ordu beltzak’ kaleratu zuten, euren lehen diskoa, eta urte bereko azaroan Gaztea Saria irabazi zuten.

Adierazpenari askatasuna emanaz eta inprobi-sazioa oinarri izanda, abesti lasai eta sakonenetik bizienetara pasatzen da, abesti bakoitzetik esperientzia bat eginez.



OPIILAK

Orain dela aste batzuk zabaldu zuten opildegia Ermuko hiru lagun hauek eta euren herriko jaietan, txosnagunean, saioa eskaini ondoren, Arraten izango ditugu dantza gozoak eskaintzeko.

Arrate Eguneko gauean izango dugu euren eskaintzaz gozatzeko aukera, 04:00etan hasiko den kukurruku txapelketa aurretik. Kukurruko egiteko indar faltan egonez gero, pasa opildegitik energia berritzera, dantza eginez lortzen den energia berezi hori.

Jokin Aja eskubaloiko munduko txapelkun izan zen Espainiako selekzioarekin

19 urteko eibartarrak txapela jantzi zuen Espainiako selekzioarekin Kroaziako Varazdin herrian jokatutako jubencil mailako munduko txapelketan, finalean Danimarkari 28-23 irabazita. Orain arteko ibilbidean beste urrats garrantzitsu bat izan da oraingokoa gaur egun

Bartzelonako jokalaria den 2'06 metroko pibotarentzat. Hala ere, lehen pausua Eibar Eskubaloian eman zituen Jokin Ajak (**argazkian 4 zenbakiarekin**) orain hasiko den denboraldian Asobal Ligako BM Torreviejan jokatuko du, Bartzelonak denboraldi baterako lagata.



Imanol Egidazu Europako atletismo txapelketan izan zen

Eibarko Klub Deportiboko atletak Israelen jokatutako Europako txapelketako 400 metro hesietako eta 4x400 metroko erreleboetako probetan hartu zuen parte. Aurretik zilarrezko domina irabazi zuen 20 urtetik beherako Espainiako txapelketan, 51.84 segundoko denbora ikusgarria eginez; horrek, bere marka lortzearekin batera, Europakoan lehiatzeko txartela eman zion.

Debarrena eta Arrateko Igoera gogoratuz

Frantziako Tourra sailkapeneko 8. postuan amaitu zuen **Ane Santesteban**ek kontuan izan zuen 2009an Debarrena taldean zuzendari izan zuen **Juanjo Sebastian**, orduko hartan hasitako ibilbideak bideratu zuelako errenteriarra aurten Tour-

maleten munduko onenekin izatera: "Zeinek esango zigun orduan horrelako uneak bizi ahal izango genituenik!". Debarrenan taldekide izan zuen **Jon Izagirre**ek ere beste etapa bat bereganatu zuen Tourrean. Eta abuztuan hil zen Arra-



Bahamontes Arraten helmugaratzen. Goiko argazkian, Santesteban Tourmalet gainean.



teko Igoera berarentzat "lasterketa gogokoan" jotzen zuen **Federico Martin Bahamontes** txirindulari ohia. 1958tik 1962ra arte jokatutako bost edizioetan igoera irabazita eta marka jarri zuenak hori adierazi zion...eta kitto!-ri orain urte batzuk, **Juanito Txokoren** lana gorai patzeaz aparte. "Toledoko arranoa"-ren izena duen lasterketa jokatzen da urtero Ermuan.

JAZ-eko triatloilariak geratu barik ibili dira abuztuan ere

Esaterako, Alpe d'Huez enblematikoan jokatu bertako Triatlon Txapelketan JAZ Eibar Triatloi Taldeko bi ordezkari izan ziren parte hartzen. Pablo Zabalak duatloian jardun zuen (6,5 km antxintxiketan, 15 km bizikletan eta beste 5,5 km antxintxiketan), 165. postuan amaitzeko, 02:03:41eko denborarekin. Miguel Ledesma distantzia luzeko triatloia osatu zuen (2,2 km igerian, 118 km bizikletan eta 20 km antxintxiketan), 31. postuan sailkatuz, 06:29:50 denboran. Proba berean Portugaleteko Alusigma Peñota Dental Triatlon taldea ordezkatzuz lehiatzen duen Pello Osoro eibartarrak bi lehiaketetan hartu zuen parte, duatloian zazpigarren amaitu eta distantzia luzeko triatloian 11. sailkatzeko.

Bestalde, Medina de Riosecoko triatloian garaipenetik 4 segun-



Ledesma Medina de Riosecoko podiumean izan zen / Aitor Fernandez Allarizko triatloian.



dora geratu zen Miguel Ledesma. Ermuarra iaz ere bigarren izan zen distantzia laburreko triatloi horretan (1.400 m igeriketan, 31 km bizikletan eta 10,5 antxintxiketan) eta urrats txiki batzuetara izan zuen aurten irabaztea, azken tramoan lehenengoari zati handia erreku-peratuz. Hori konpentsatzeko, Ai-

tiber Urkiolak irabazle izatea lortu zuen distantzia luzeko proban.

Galizian izan genuen, azkenik, Aitor Fernandez esprint distantzian jokatzen den Allarizko triatloian. Euriak probako txirrindularitza segmentua baldintzatu bazuen ere, eibartarrak ondo lehiatu zuen eta 01:23:25ean helmugaratu zen.



Arima Galduak 63. sailkatu zen Unben jokatu bertako Jugger Mundu Txapelketan

600 jokalaritik gora bildu zituen Eibarren antolatutako txapelketan 67 taldek hartu zuten parte guztira eta gure herriko ordezkaria 63. postuan sailkatu zen. Zorte handirik ere ez zuen izan Arima Galduak-ek, partidu batean "arbitraia arazoak tarteko, alemaniar taldeak zenbaketa gaizki eginez puntua beste taldeari eman ziolako". Lehen egunean, barixakuan, oso partidu gogorrei egin behar izan zieten aurre eibartarrek; zapatuan, bestalde, partidu bakarra irabazi zuten, eta domekan beste hiru.



Mallabiko astoa nagusi Azitainen

Azitaingo Andramari jaien barruan jokatu zen desafioan, Mallabiko Iratzola baserriko astoak Aizarnazabalgo Etxabe baserrikoari irabazi zion 600 kiloko harriarekin egindako norgehiagokan. Hori bai, lehia ezin parekatuagoa izan zen eta zentimetro gutxi batzuringatik nagusitu zen Mallabiko astoa.



Ikastaro eskaintza zabala antolatu du Jabetze Eskolak

Irailaren 30ean amaituko da Jabetze Eskolako udazkeneko ikastaroetan aurrematrikula egiteko epea. Izena emateko interesa duenak Udalaren eta Andretxearen webguneetan eskuragarri dagoen formularioa bete beharko du. Nabarmendu behar da Eibarko Jabetze Eskolak udazken honetarako antolatu dituen ikastaro eta tailerren eskaintza nabarmen zabaldu dela. Hala, hauek dira udazken honetan eskainiko diren ikastaroak: *Inguruko landareak ezagutu eta erabiliz gure mundua handitzen*, *Sasoiko sukaldaritza: Zer egin dezaket udazkeneko nire barazki saskiarekin?*, *Autodefentsa Feminista*, *Belaunaldien arteko autodefentsa feminista*, *Autozaintza emozionala*, *Bizitzarako Mindfulness: ahalduntze tresna*, *Lurretik Zaindu*, *Ziklikoki bizi taldean*, *Amatasuna eta ahalduntzea eta Osasuna Plazerra badelako, elikadura osasuntsuaz gozatu*. Ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza Berdintasun Zerbitzua-Andretxearen webgunean ikus daiteke.

Indalecio Ojanguren Argazki Lehiaketaren edizio berria



Irailaren 31ra arte egongo da zabalik Indalecio Ojanguren XXXVI. Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. Horretarako, gehienez ere hiru argazki zuri-beltzean eta hiru koloretan aurkeztu ahal izango dira eta, gainera, inoiz sariarik jaso ez duten argazkiak izan beharko dira (informazio gehiago Eibarko Udalaren webgunean).



Italiako emakumeen literaturari buruz aritzeko egitasmo berria Andretxean

Italiako emakumeen literatura izango da protagonista aurtien lehenengoz egingo diren Munduko Emakumeen Literatura saioetan, “*Querrelle delle femmes*-en manifestuetatik hasi eta gaur egunera arte, emakume italiarren bizitzan eta literaturan eragin handiena izan duten une historikoak zeharkatuz. Sarrera geografiko eta soziologiko bat egingo da, testuak testuinguruaren arabera aztertzen laguntzeko”. Emakumeei zuzendutako saioak Ainhoa Aldazabal Gallastegik gidatuko ditu eta hilean behin egingo dira, 17:30etik 19:30era, Andretxeko Maistrak gelan, data hauetan: urriak 4, azaroak 8, abenduak 20, urtarrilak 17, otsailak 21, martxoak 20, apirilak 24 eta maiatzak 22. Saio hauetan izena emateko aurrematrikula bete beharko da aurretik (irailaren 22rako), Udalaren eta Andretxearen webguneetan eskuragarri dagoen formularioa beteta (Andretxean eta Pegoran ere bete ahal izango dira).

Zabaldu dute Antzerki Laborategirako izen-ematea



Aste honetan zabaldu dute Antzerki Laborategian izena emateko epea. Aurrematrikula Eibarko Udalaren webgunearen bitartez egin beharko da eta hilaren 17ra arteko epea dago horretarako. Urriaren 3tik urtarrilaren 31ra bitartean egingo den tailerra elebiduna izango da eta, hasiera batean, lau multzotan banatu dituzte taldeak, adinaren arabera.



Harixa Emoten euskarazko irakurketa taldean parte hartzeko izen-ematea zabalik

Idazlearekin Harixa Emoten helduentzako euskarazko irakurle taldean parte hartzeko interesa duenak irailaren 15era arte egin ahalko du aurrematrikula, Eibarko Udalaren webgunearen bitartez. Juan San Martin Eibarko Udal Liburutegiak ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatzen duen ekimeneko saioak hilean behin izaten dira, Portalean, 19:00etatik 20:00etara, eta bertan parte hartzen duen idazle gonbidatuak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkarrekin trukatzeko aukera ematen die, Ainhoa Aldazabal Gallastegik gidatutako aurrez aurreko solasaldien bitartez. 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta jardueran parte hartzea doan da.

Irakurketa talde gehiago

Helduen euskarazko irakurleen taldearekin batera, Eibarko Udal Liburutegiak beste talde batzuk osatuko ditu ikasturte honetan ere, haur zein helduen artean irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin. Besteak beste, *Liburuen poltsa* eta *Azalerako ipuinak* familientzako irakurketa klubak, helduentzako gaztelarazko irakurketa kluba eta *Paperezko hegoak* ume eta gaztetxoek irakurle kluba ipiniko dira martxan. Proiektu bakoitzari buruzko informazio guztia eibar.eus webgunean aurkituko duzue edo, bestela, Liburutegian bertan galdetu dezakezue. Ikasturte honetarako aurrematrikula egiteko epea irailaren 22an amaituko da. Aipatutakoarekin batera, nahi izanez gero atzerriko hizkuntzak (ingeleza eta frantsesa) praktikatzeko aukera ere badago. *Meetings at the library* eta *Réunions dans la Bibliothèque* izeneko taldeetan parte hartzeko interesa duenak irailaren 15erako eman beharko izena. Jarduera guztiak doan dira.



Euskara sustatzeko plana egin dute hamar kirol taldek

Urbat Waterpolo, CD Urki, Eibar Igerixan, Eibarko Triatlota, Eibartarrak FT, Eibarko Klub Deportiboa, Eibar Rugby taldea, Asola Berri, Gimnasia Ritmica Ipurua eta Eibar Eskubaloia kirol taldeek euskara plana egin dute 2023/24 denboraldirako. Ume eta gazteei zuzendutako jardueretan entrenatzaileek euskaraz egiteko ohitura ezartzea da helburua, "baita zuzendaritzen eta klubaren eguneroko lanean euskarari tokia egitea ere".

Eibarko hiztegia Berbategian

Euskalkien altxorra jasotzeko diseinatu den Berbategia proiektuarekin bat egin du Eibarko Udalak eta, horrela, Eibarko Euskara Hiztegia



ere www.berbategia.eus plataforman txertatu dute. Euskalkien Lagunak izeneko lantaldeak abiatu du egitasmoa, Iberbaren laguntza teknikoarekin, euskalkiak zaindu eta ikertzaileen esku tresna eraginkorra jartzeko asmoarekin. Berbategia.eus plataforman 29 herri eta eskualdetako euskara hiztegien bilketa lana egin da, eta horien artean sartu da www.eibarko-euskara.eus hiztegia ere.

Juan San Martin Bekarako eskaerak, urriaren 12ra arte

Urriaren 12an amaituko da Juan San Martin bekarako eskaerak egiteko epea. 2023ko deialdirako ikerketa-esparrua 'Mendialetasuna eta natura' izango da eta bekaren oinarriak eta beste xehetasun guztiak eibar.eus helbidean kontsultatu daitezke.

Jon Etxabe militanteak agur esan digun honetan



Hilabete pasatxo da ...eta kitto! Euskara Elkartearen sorreran ere partaide izan zenak laga gintuela, 90 urterekin. Altzolako Mispillibar etxean 1933an jaiotako Jon Etxabe apaiz ohi eta ETAko kide izandakoa uztailaren 31n zendu zen. 13 urterekin seminarioan sartu zen, ondoren Saturrarán, Gasteiz eta Donostiako apaiztegiak ezagutzeko. Apaiz sartu zen 1950eko hamarkadaren amaieran, eta Eskoriatzako Marin auzoan bost urte eman zituen. Ondoren, dagoeneko Azitaingo abadea zela, ETAko kide batzuei laguntzen hasi eta, jarraian, erakundean sartu zen Txabi Etxebarrieta hil eta gutxira. 1969an Mogrovejon atxilotu zuten, beste hiru lagunekin batera -tarteetan Enrike Gesalaga eibartarra- eta, ondoren, Burgosko auzian epaitu. 1971n 50 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Zazpi urte igaro zituen giltzapean Zamoran, eta beste bat Lleidako monasterio batean. Orain dela bederatzirte pasatxo "Zamorako landan" liburua idatzi zuen, espetxean bizi izandakoak kontatzeko. Hori aprobetxatuz, ...eta kitto!-n elkarrizketa eskaini zigun (**2014-IV-4an kaleratutako 885. zenbakian**). Aurretik, ...eta kitto! elkarteak, sortu eta gutxira, herriko lau euskaltzaleeri egindako omenaldian, bera izan zen protagonistetako bat, Kontxa Laspiur, Josu Arkotxa eta Margarita Murgizurekin batera. Irakaslea eta idazlea ere izan zen Jon Etxabe eta, Irun Hiria Kuxta, Antsoaingo Lapurbide eta Ermua Hiria literatur lehiaketetan sariak irabazteaz gain, blog batean bere bidaien eta ideien berri ere ematen zuen.


Aipatutako omenaldi hori 1993ko urrian egin zion ...eta kitto!-k eta, horren harira, honakoa kontatu zigun orduko hartan (**1993-X-15, 58. zenbakia**). "ETA barruan ere oso abade sentitu nintzen, baina ikusi nuen elizaren barrutik herri honen askatasunaren alde oso gutxi egin ahal zela; abade fina izan naizelakoan nago eta, bestela ere, motibazio berarekin jarraitu izan dut. Debako Eskolak aukera eskaini zidan irakaskuntzan sartzeko eta,

urte batzuk lan horretan emanda, jubilatzerakoan patxadaz hartutako sasoi berrian, omenaldia ekin-tzat hartzen dut, `pelota inori pasatu barik, behin eta betirako kentzeko`".

Bestalde, orain dela ia 10 urte "Zamorako landan" liburua kalera-tu zuenean berarekin egoteko aukera izan genuen eta "**Jon Etxabek ondo gogoan dituenak**" tituluarekin kaleratutako elkarrizketaren galdera-erantz gain batzuk dituzue ondokoak.

Euskeraren inguruan ez duzu ibilbide motza egin; sutsu jardun duzu gainera. Baita EHE-en militatu... Hasierak, baina, ez ziren hain samurrak izan, ezta?

Seminarioan -hori bai lotsagarria- ez genuen euskerarik ezertarako landu. Euskal kontzientzia ere Eskoriatzako Marin auzoan egin-dako sasoiari landu nuen, orduan ere sermoiak erderaz egin arren. Hemen Azitainen, baina, euskaldunen eskubideen aldeko jarrera indartzen jardun nuen eta euskerazko zine-foruma ere antolatuta genuen, euskal gramatika ezagutzen ez bagenuen ere. Kartzelan alfabetatu nintzen ni, Amurizak ematen zituen klaseetan. Amnistiarekin behin kartzelatik irtenda, Debako Eskolak eskaini zidan irakaskuntza sartzeko aukera eta, euskeraren alde, hango Gurasoen Elkarteak lan handia egin zuen. Karmelo Urdangarin zuen kolaboratzailea tartean zegoen. D eredua irakaskuntza publikoan sartzeko gogor borrokatu behar izan genuen eta grebak ere egin behar izan genituen tarteko. Pedagogia ikasi barik eta ez titulurik ez magisteritzarik; prestatu beharra zegoen. Horrela ateratu nuen Magisteritza, Euskal Filologian: hiru urtetan asteburu osoak ematen nituen UNEDen eta, batzuk titulua oparitu zigutela bazioten ere, ez da izango guk baino lan gehiagorik aurkeztu behar izan duenik Magisteritza ateratzeko. Gero, Elgoibarren D eredua sartu genuen, klaustroan nagusitu ginelako, eta niri aurre-eskolan jardutea egokitu zitzaidan, hiru urteko umeekin. Behin Eibarrera etorrita, ...eta kitto! elkartearen sorrerako taldean izan nintzen Fernando Muniozguerenek bultzatutako saiakeran eta ondo gogoan dut sarrerako testua ere nik jiratu nuela.



>>> "Behin Eibarrera etorrita, ...eta kitto! elkartearen sorrerako taldean izan nintzen, eta ondo gogoan dut sarrerako testua ere nik jiratu nuela"

Azitaingo parrokoa izandakoak, Etxarritik bueltan, Eibarren eman ditu azken urteak. "Zamorako landan" liburuan bertako espetxean bizitakoa kontatu zigan.

Zelan gogoratzen dituzu Azitainen emandako urteak?

Bost urte izan ziren eta harreman oso ona izan nuen hemengo jendearekin; gertukoak sentitzen nituen, batez ere. Nire barnean, dena dela, apaizaren papera zalantzan jartzen hasi nintzen, halako krisi bat izan nuen, Kontzilioa ere pasatuta zegoen eta gure sermoiei zer edo zer falta zitzaien. Jendearekin harremanak jorratu nituen eta JOC-aren (Juventud Obrera Cristiana) inguruan jardun genuen; beste herri batzuetan Euskal gaztediak indar gehiago izan zuen. Egia esan, gazteekin eta langileekin izan nituen esperientzia onenak eta ohartu nintzen sindikatuak eraginkorrak zirela.

Arma hartzeak ez zizun barneko kontraesanik sortu?

Zelan ez! Laguntzaile gisa jardun banuen ordura arte, liberatuarena beste urrats bat zen, eta ez nolana hiko. Baina nire burua babes-tu beharra nuela esan zidaten eta

beharrezkoa ikusi nuen aurrera egitea eta ez nintzen kokildu. Doktrina ofizialak nahi duena esan, baina Hegoamerikan ere abade bat baino gehiago sartu zen gerrillan. Ez gaitzezen engaina: ez da ba Eliza beti arma gizonekin ibili, estatuekin bat eginda askotan? Kapellau militarren figura-eta, nondik datoz ba? **Dena dela, oraindik ez zara sekularizatu, ezta?**

Ez, ez. Zertarako hainbeste papeleo? Denbora mordoa galtzea besterik ez dakar horrek. Gainera, seminarioan izandako hainbat abade elkartzan jarraitzen dugu. Hor izateak aberastu nau ere: esperientzia handia eman dit eta bizitza ikuspegi zabaltzen lagundu.

Gaur egun ere badakigu presoek eskubideen alde lanean diharduzula.

Zelan ikusten duzu haien egoera? Lau hilabete dira Eibarrera bueltatu nintzela eta, Etxarrin eman ditudan azken urteotan, hango batzarretan-eta parte hartu izan dut, bai Etxerat-ekin eta baita Sasoian izeneko jubilatuen mugimenduetarekin. Hain herri txikia izateko, preso asko daude Etxarrin: bederatzi badira. Bestalde, gaur egun presoek bizi duten egoeraz ez naiz baikor: ez zaizkie irtenbiderik eskaintzen eta, ohikoa denez, haien aldeko herri-mugimendu indartsua izan beharko da zeozer lortzekotan. Orain arte ez da nahikoa egin, interes asko baitaude tartean. Gainera, kartzela,

onena izanda ere, basakeria hutsa da, mendekua besterik bilatzen ez duena. Azken mugimenduak, presoek-eta, aldebakarrekoak dira eta Madrilek ez du bere jarrera aldatzen, nahiz eta nazioarte mailan erretratututa geratu.

Eta ETAK borroka armatua laga ondorengo uneok, zelan bizi dituzu?

Prozesu luzea, korapilatsua eta zaila aurreikusten dut. Zaila da aurreratzea nondik joko duen honek guztiak, baina bide horretatik joan behar du. Ez dago motibo askorik baikorra izateko, baina pazientzia handia izan behar dugu, gogor eutsi behar diogu eta gauzak konponbidean jartzeko ahaleginean jarraitu. Merez du.



...eta kitto! elkartearen irudia, 1992koa. Makurtuta, eskumatik hasita lehena, Jon Etxabe.

>>> "Eman behar nuena eman dudala uste dut, pozgarria izan da"

Maria Luisa Ruiz Arana bizitza guztiko bikotekidearekin klandestinitatera jo zuen Jon goitik behera torturatua izan zenez, 2013. urtean Maria Servini magistratuaren aurrean deklaratu zuen Argentinako Enbaxadatik, 36ko Gerran eta diktaduran egindako gizateriaren aurkako krimenengatik irekitako kereilaren barruan. Iratzar Fundazioak orain dela hilabete batzuk lan zabalago baterako bildutako elkarrizketan

honakoa zioen berak: "Oso bizitza aberatsa izan dut. Gizarte honi nire bizitza eman diot eta pozgarria da, gauza majo batzuk egin ditut, akatsak ere bai. Eman behar nuena eman dudala uste dut, nahiz eta agian gauza gehiago egiteko kapazitatea nuen". Gertutik ezagutu zutenek eta beste askok "militante"-tzat jo dute bere jarduna, berak jorratutako esparru guztietan "herriarekin zuen konpromisoari eutsi baitzion".



soluzioa



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK

SARRERA ▶

LABIRINTOA

IRTEERA ▲

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	7	9			4		
8				4			7
4			1		3		
3				7			5
	2						1
	1			5			3
		5			9		4
9			6				5
		3				9	6

Z	N	A	S	P	A	C	R	L
N	C	I	R	C	V	A	P	N
P	T	B	S	I	C	O	N	O
C	H	P	Z	O	R	B	I	J
B	I	J	A	C	H	P	Z	O
B	O	S	I	A	M	B	O	C
B	R	O	L	O	L	Z	O	R
A	B	S	H	O	B	E	A	C
L	C	N	C	R	A	T	N	

soluzioa

SUDOKU

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

8				5			1
	2						3
				9	7	8	6
			8	5		6	
3	2					5	4
		5		3	6		
1	3	7	2				
	9						7
2			9				8

soluzioa

B	L	C	O	R	Z	O	R
P	C	O	V	A	P	N	
P	C	O	V	A	P	N	
P	C	O	V	A	P	N	
P	C	O	V	A	P	N	
P	C	O	V	A	P	N	
P	C	O	V	A	P	N	
P	C	O	V	A	P	N	
P	C	O	V	A	P	N	



Sofarik ezean, naturaz gozatzeko parada. Fernando Solana



Oswaldo Gallastegi Axpe

2023/08/23

"BETI GOGOAN, OSWAL"



- IPURUAKO LAGUNAK -



Mari Carmen San Miguel Losada

2023/07/20

"Ahaztu ezina izango da alkarrekin bizi izan doguna, zure esaldi txukun eta zorrotzak. Agurrik ez, esker onak Sanmi"



Angeli, Blanqui, Eli, Mari Nieves, Marian, Marivi, Puri, Rosi, Tere



Begoña Aranguren Odriozola

3. URTEURRENA
2020/08/29

"EGUNERO ZAITUGU GOGOAN"



ZURE FAMILIAK
BETI BIHOTZIAN

Enrique Alcelay Aizpiri

2. URTEURRENA
2021/08/31

"Gure bihotzetan zaude betirako. Maitte zaittugu"



- ETXEKOAK -

Manu Fernandez Goikoetxea

9. URTEURRENA
2014/08/04

"Ez egin negarrik amaitu delako; irribarre egin bizi izan dugulako"



- ZURE KUADRILA -

1. URTEURRENA 2022/09/01

Gurekin jarraitzen duzu, FELIPE



- Ana, Anacris, Asun, Belen, Cristina, Maite, Mariña, Myriam, Javi, Jon, Juanca, Manli, Roberto, Sepe, Tofo eta Victor -

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **10ean:** 17:00, 20:00
- **11n:** 19:30

“La guerra de los Lulus”
DRAMA



2023/Frantzia/109'
Zuzendaria: Yann Samuëll
Aktoreak: Isabelle Carré,
Tom Castaing, Léonard Fauquet
Abenturak/Nerabezaroa

2 ARETOA

- **10ean:** 20:00
- **11n:** 19:30

“Oppenheimer”
DRAMA



2023/AEB/180'
Zuzendaria: Christopher Nolan
Aktoreak: Cillian Murphy,
Emily Blunt, Robert Downey Jr.
Thriller/Historikoa

ANTZOKIA

- **10ean:** 17:00 (2 Aretoa), 20:00
- **11n:** 19:30

“Megalodon 2. La fosa”
AKZIOA



2023/AEB/116'
Zuzendaria: Santiago Segura
Aktoreak: Jason Statham,
Wu Ying, Shuya Sophia Cai
Zientzia-fikzioa/Marrazoak

ANTZOKIA

- **10ean:** 17:00

“Ninja Turtles”
ANIMAZIOA



2023/AEB/99'
Zuzendaria: Jeff Rowe
Abenturak/Superheroiak



Alejo Martinez Sanchez

1. URTEURRENA
2022/09/04

“Orain dela urtebete
guregandik joan zinen,
baina gure bihotzetan
jarraituko duzu betirako”

MAITE ZAITUGU
- ZURE KUADRILA -



Jon Etxabe Garitazelaia

1933/06/20 - 2023/07/31

Hire bizitzaren ibilbide
luze eta baikorrak
Erakutsi zizkigun huan
indarraren
Hainbat exenplu
emankorrak.
Ama Lurrak har haitzala
goxo bere besoetan!

BETI IZANGO HAIZ GUREKIN!


Eibarko Memoria Taldea





- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 26
☎ 943 20 79 73



LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **GARA**, abuztuaren 21ian 3 urte bete zenduaz-en-eta. Jarraitu hain alaia izaten. Etxekuen partez.



Zorionak, **JULEN**, abuztuaren 31n 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, **DANEL**, abuztuaren 30ian 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu eta besarkada haundixak famelixaren partez.



Zorionak, **PABLO!** Hillaren 9xan 3 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxe kuon eta, batez be, Lucia zure arrebaren partez!



Zorionak, **IXONE** Ortiz de Zarate Torre, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **DANEL**, txikitxu! Eskerri asko eskindu deskuzun 5 urte zoragarri hauengaittik.



Zorionak, **UNAI** Milikua Berrizbeitia, abuztuaren 25ian 3 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo potolua Aratz zure anaia eta Jon eta Danelen partez.



Abuztuaren 26xan jaixo zan **ARATZ** Milikua Berrizbeitia. Ongi etorri famelixara! Patxo bat Unai zure anaixaren eta Jon eta Danel lehengusuen partez.



Zorionak, **IKER**, hillaren 12xan 11 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat lagun eta famelixaren partez, batez be Koldoren partez.



Zorionak, **URKO**, mutil haundi! Zapatuan 4 urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat etxe kuon partez!



Zorionak, **NICOLE**, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Maite zaittugun guztion partez!!

Zorionak, **MANEX** (abuztuaren 8xan 10 urte) eta amatxo **SUSANA**, urtiak bete dozuez-eta. Musu haundi bana lagun partez.





elite

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

eskolara buelta!

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

Eskola-materiala, papertegia, motxilak, idazmahaiak, aulkiak...

943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Eibarko erdigunean. Guztiz berritua eta argitsua. Balkoia, 3 logela eta igogailuarekin. 634430647.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Amañan. 665726895 eta 688767198.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai San Pion. Zabala eta sarrera onarekin. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. 676553093.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsalde zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketak. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiei lagundu eta garbiketarako. 643309687.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko, eta etxeak edo bulegiak garbitzeko. 631102067.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko, eta etxeak edo bulegiak garbitzeko. 641456656.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 688805742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 637222318.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta txakurrak pasiatzeko. 641756213.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta txakurrak pasiatzeko. 697958198.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko arratsalde eta asteburuetan. 5 urteko esperientzia 8 urtera arteko umeekin. Ingelesa ere badaki. 691632453.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa), baita ospitalean ere, eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. 667060292.
- Neska (albaitari laguntzailea eta etologoa) eskaintzen da zure animaliak zaintzeko eta paseatzeko. 617260605.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa). Esperientzia. Externa. 602490595.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: garbiketarako, eraikuntza, pintura... 641988643.

4.2. Langile bila

- Eibarko akademia batek eskara eta ingelesa maila altuko irakaslea behar du LHko partikularrak emateko. Bidali CVa: info@itzamna.eus
- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz-klinika bateko lan-taldean. Endodontzia eta odontopediatrian esperientzia baloratuko da. Bidali curriculum: niklinika@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA

Irailaren 4tik 28ra MATRIKULA ZABALIK

2023-24 ikasturtea

Udal Euskaltegiak. Publikoak, irekiak, guztiarentzat.

EUSKARA, bidaia harrigarria

#euskarharrigarria

2023 - 2024
MARIKULA
epea zabalik



MAILA GUZTIETAKO euskara ikastaroak

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2
ONARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	

- **Autoikaskuntza:**
Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasailoak
- **Etorkinentzako harrera-ikastaroak**
(AISA, uler-sailoak)
- **Mintzamina lantzeko ikastaroa**
- **Ikastaro espezifikoak**
(jubilatatuak, irakasleak...)
- **Azterketa prestakuntza**
(16-18 urte badituzu, Cleko ikastaroa 20€)
- **HABEko titulu ofizialak**

TARIFA BEREZIAK: %20, %50 eta %75eko DESKONTUA **KONTSULTATU**

**C1 eta C2 azterketak prestatzeko
30 orduko ikastaroa**

Irailaren 13tik 30era arte

Egunero 2 ordu arratsaldez

Izena emateko epea: irailaren 12ra arte



Bista Eder, 10 -PORTALEA- euskaltegia@eibar.eus

Tfnoa: 943 70 09 12 WhatsApp: 688 698 566

**16 urtetik gorakoentzat
ORDUTEGI ZABALA**





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA



ESCUELA
OFICIAL
DE IDIOMAS
DE EIBAR

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

Matrikula:
Irailaren 1etik 18ra

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

DEUTSCH-ENGLISH-EUSKARA-FRANÇAIS

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK
hizkuntza guztietan:
Egun bat eskolan + lan
pertsonala Moodle
plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

Agiri ofiziala
eskura ezazu!

Otaola hiribidea 29
eoieibarheo@gmail.com
943899275

eoieibarheo



www.eoieibarheo.hozkuntza.net

